

IRAKASGAIEN PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA 2025-2026



BENTADES IKASTETXEA

Ikasgaia/ Arloa	GORPUTZ HEZKUNTZA		
Irakaslea	Asier Ipiña	Ikasturtea	2025 / 2026
Zikloa/ Maila	DBH 4	Talde kopurua	2

JUSTIFIKAZIOA

Programazio hau irakasgai bakoitzeko testuingurua kontuan hartuta garatu da, eta helburu nagusia ikasleen ikaskuntza esperientzia ahalik eta eraginkorrena izatea da. Lehenik eta behin, ikasleen abiapuntua aztertzen da, bakoitzaren gaitasunak, aurrezko ezagutzak eta behar bereziak identifikatuz. Ondoren, gelaren egoera eta ikastetxearen errealtate zehatza kontuan hartuta, programazioak ikaskuntza esanguratsua sustatuko duten estrategiak proposatzen ditu.

Urtez urte egindako memoriak eta hobekuntza-proposamenak erreferentziatzen hartuta, programazio honek aurreko ikasturteetan identifikatutako hutsuneak zuzentzea eta indarguneak areagotzea du helburu. Ikasleen garapen akademikoa, soziala eta pertsonala optimizatzeko, programazioa etengabeko ebaluazioaren bidez egokitu eta hobetu egingo da, beti ere, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko konpromisoari eutsiz.

FUNTSEZKO KONPETENTZIAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia (HKK) Konpetentzia Eleaniztuna (KE) Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeneritzarako konpetentzia (STEM) Konpetentzia Digitala (KD) Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII) Herritartasunerako Konpetentzia (HK) Ekintzailtza Konpetentzia (EK) Kontzientzia eta adierazpide kulturalerako Konpetentzia (KAKK)	<u>Ikus anexo</u>

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK (LINK)

<p>1. Jarduera fisikoak osasunean, oro har, dituen efektuak ebaluatzea, oinarri zientifikorik gabeko praktikak baztertuz, gorputz-eredu estereotipatuekin kritikoa izanez eta autorregulazio emozionaleko prozesuak eta gatazkak kudeatzeko prozesuak garatuz, bizimodu aktiboa eta osasungarria hartzeko.</p>	<p>1.1 Osasunaren kontzeptu integralera eta bizimodu aktibora zuzendutako jarduera fisikoko praktika planifikatzea eta autorregulatzea, premia eta interes indibidualen arabera eta norberaren gorputz-errealitatea eta -nortasuna errespetatuz.</p> <p>1.2 Ohitura osasungarriak autonomiaz eta erantzukizunez hartzea, baita lesioen prebentziorako neurri orokorrak ere, arrisku-egoerak antzematen ikasiz.</p> <p>1.3 Larrialdietan edo istripuetan, protokoloen arabera esku hartzea, lehen laguntzako berariazko neurriak aplikatuz.</p> <p>1.4 Gorputz-arloarekin lotzen diren gizarte-estereotipoak eta osasuna arriskuan jartzen duten portaerak baztertzen dituzten jarrera konprometituak eta eraldatzaileak hartzea, edozein informazio autonomiaz eta independentziaz kontrastatuz, baliozkoak, fidagarriak eta objektiboak diren irizpide zientifikoetan oinarrituta.</p> <p>1.5 Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloarekin lotzen diren baliabide eta aplikazio digitalak maneiatzea, eguneroko praktika fisikoa planifikatuz, garatuz eta segurtasunez partekatuz.</p> <p>1.6 Gainerako parte-hartzaileekin harremanak izatea eta elkarriulertzea, gatazkak kudeatzeko elkarriketarako gizarte-trebetasunak eraginkortasunez erabiliz, aniztasuna errespetatuz, kirol-legearen kontrakopraktiken ondorio etikoak baloratuz eta jarrera aktiboa hartuz estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.</p> <p>1.7 Jarduera motorren antolamenduan emozioak kudeatzea, erantzukizunak bere gain hartuz, gainerako esku-hartzeak errespetatuz, eta kirol-legez jokatzu antolatzailearen, ikuslearen, parte-hartzailearen edo beste batzuen rola betetzean.</p>
<p>2. Ziurtasunik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, gero eta autonomia handiagoz eta, erronka fisikoei aurre egitean, hobetze-eta erresilientzia-jarreraz, betiere autonomia eta hazkunde harmonikoa garatzeko ikuspuntu organikotik, kognitibotik, afektibotik eta sozialetik.</p>	<p>2.1 Egoera psikomotorrak ebatzea, akzio-printzipioak aplikatuz, eta gorputzaren kontrola eta menderatzea handituz, motrizitatearen osagai kualitatiboak eta kuantitatiboak eraginkortasunez, sormenez eta autonomiaz erabiltzean.</p> <p>2.2 Gero eta kateatze eraginkorrak egitea, egoera bakoitzaren barne-logika interpretatuz, akzio-plan pertsonalak pixkanaka perfektionatuz eta haien esku-hartzea baloratuz eta doitzuz.</p> <p>2.3 Nork bere jokabide motorra erregulatzea, norberaren ahalmen motorrak identifikatuz, jolas-jardueren bidez gaitasun fisikoak hobetzen lagunduz, eta ezagutza eta balioak beren bizi-eremura eramanez.</p>
<p>3. Ziurtasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-egoera sozomotorren eskakizunetara egokitzea, kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa hartuz, erronkara egokitutako jokabideak doitzeko eta kultura motorren lorpenean eta sorreran laguntzeko.</p>	<p>3.1 Aurkaritza-testuinguruetan doitasunez elkarreraginean aritzea, akzio-printzipioak aplikatuz, norberaren gaitasunak eraginkortasunez aprobetxatuz, soluzioei eta lortutako emaitzei buruz gogoeta eginez, eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa azalduz.</p> <p>3.2 Akzio-planak garatzea, egoeren barne-logika eta norberaren eta aurkariaren gabeziak eta indarguneak aztertuz eta, beharrezkoa izanez gero, plana berregokituz.</p> <p>3.3 Aurkaritzako kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, kultura motorren lorpenean eta sorreran lagunduz eta jatorri desberdineko pertsonen artean elkarreragin eraikitzaileak sortzeko espazio gisa duten balioa eta potentziala ezagutzuz eta transmitituz.</p>

<p>4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autorregulazio-prozesuak jarrera enpatikoz garatuz —desberdintasun kulturalak, sozialak, generokoak eta trebetasunekoak edozein izanik ere—, parte hartzen den guneeetako gizarte-bizikidetzan, gizarteratzean eta konpromiso etikoan laguntzeko.</p>	<p>4.1 Proiektu motor kooperatiboak ebaztea, helburu komunak bilatuz, arau-itunak eginez, erabaki partekatutako hartuz, eta elkarri lagunduz.</p> <p>4.2 Bidezko parte-hartzea sustatzea, autoebaluaziorako eta koebaluaziorako estrategiak barne hartuz —prozesuarenak zein emaitzarenak— eta esleitutako rolak eta horien erantzukizunak bere gain hartuz.</p> <p>4.3 Bizikidetzaren sozialean eta gizarteratze-prozesuan laguntzea, portaera etikoaren eta jarrera enpatikoaren bidez, betiere jarrera kritikoa erakutsiz estereotipoen aurrean eta jarrera proaktiboa erakutsiz jardun diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean.</p>
<p>5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako aurkaritza-/kolaborazio-egoera soziomotorretan elkarerraginean aritzea, akzio-arauak eta -printzipioak aplikatuz eta aditze sozialean lagunduz, informazio-eskaera handia duten egoeretan jokabide motorra doitzeko eta kultura motorra lortzen eta sortzen laguntzeko.</p>	<p>5.1 Aurkaritza-/kolaborazio-testuinguruetan elkarerraginean aritzea, oinarritze knikoak eta taktikoak aplikatuz, erantzunak automatizatuz eta kirol-legearen edo bizikidetzaren kontrako portaeren aurrean jarrera kritikoa eta proaktiboa erakutsiz.</p> <p>5.2 Aurkaritzako/kolaborazioko kirol-jokoetan modu aktiboan parte hartzea, haien jatorria, bilakaera, interes ekonomikoak eta politikoak eta egungo gizarteetan duten eragina baloratuz, eta jatorri desberdineko pertsonen artean eraikuntza-elkarerraginean sortzen dituen espazio gisa baloratuz.</p> <p>5.3 Motrizitatearen testuinguru batzuetan oraindik ere gertatzen diren genero-estereotipoen aurrean jarrera konprometitua eta kontzienteak hartzea, haiek mantentzen laguntzen duten faktoreak aztertuz.</p>
<p>6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan akzio-aukerak aurkitzea eta behar bezala eta segurtasunez aprobetxatzea, ikasleen ohituretan natura-eta hiri-ingurunean garatuko den aisia osasuntsu, jasangarri eta maila ekosozialean arduratsua sartzeko.</p>	<p>6.1 Ziurgabetasuna duen ingurune batean egoera motorrak ebaztea, kirol-jardueren eta jarduera fisikoen oinarritzekoak eta taktikoak aplikatuz eta eraginkortasun eta doitasun jakin bat bilatuz.</p> <p>6.2 Ingurune naturaletan (lurrekoak edo uretakoak) egiten diren kirol-jardueretan parte hartzea, inguruneaz modu jasangarrian gozatuz, jarduera horiek sor dezaketen ingurumen- inpaktua minimizatuz, haien aztarna ekologikoaz jabetuz eta garatzen diren espazioetako baldintzak kontserbatzeko eta hobetzeko jardunak eginez.</p> <p>6.3 Natura-eta hiri-ingurunean jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak praktikatzeko eta antolatzea, erantzukizunak bere gain hartuz eta segurtasun-arau indibidualak eta kolektiboak aplikatuz.</p>
<p>7. Gorputza adierazpen-eta komunikazio-tresna gisa erabiltzea, emozioak kudeatuz eta kultura motorren adierazpen guztiak aztertuz, haien eragina eta kulturari egiten dizkieten ekarpen estetikoak eta sormenezkoak baloratzeko eta akzio-aukerak eta adierazpen-baliabideak jardun motorren artean integratzeko.</p>	<p>7.1 Musika-oinarria duten eta ez duten konposizio indibidualak edo kolektiboak modu koordinatuan sortzea eta errepresentatzea, gorputza eta mugimendua nahita eta autonomiaz erabiliz adierazpen-eta komunikazio-tresna gisa, zenbait adierazpen-teknika espezifikoren bidez, eta kultura-praktika horiek ikaskideen edo komunitateko beste kide batzuen artean zabaltzen eta partekatzen lagunduz.</p> <p>7.2 Norberaren kulturarekin eta beste kultura batzuekin lotzen diren adierazpen artistikoetako eta espresiboetako parte-hartzea kudeatzea, haien kontserbazioa erraztuz eta haien jatorria, bilakaera eta gizarte garaikideetan duten eragina baloratuz.</p> <p>7.3 Emozioak kudeatzea, arte-eta adierazpen-egoeretan desinhibituta eta eraginkortasunez parte hartzeko gai izanik, eta gainerako esku-hartzeak errespetatuz.</p>
<p>SEKUENTZIA eta DENBORALIZAZIOA</p>	
<p>1. ebaluaketa</p>	

Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua / Zer ebaluatuko da?	BALIOAK		<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
AZTERKETA PRAKTIKOA	40%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
KLASE PRAKTIKOA	50%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
2. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	BALIOAK		<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>
OINARRIZKO GAITASUN FISIKOEN PROBAK	25%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.

		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
KLASE PRAKTIKOAK	50%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
3. ebaluaketa			
Unitatearen / Ikas egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikoak	<u>Konpetentzia espezifikoak laburtuta</u>	
AZTERKETA IDATZIA	40%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
KLASE PRAKTIKOAK	50%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.

		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.
JARRERA	10%	<input checked="" type="checkbox"/>	1. Ohitura fisiko aktibo eta osasuntsuak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	2. Banakako trebetasun fisikoak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	3. Aurkaritza jarduera edo jolasetara modu arrakastatsuan egokitzea
		<input checked="" type="checkbox"/>	4. Kooperazio-egoeretan jarrera enpatikoa garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	5. Bai arauak bai kide eta aurkarienganako errespetuzko jarrerak garatzea.
		<input checked="" type="checkbox"/>	6. Naturan eta ingurune ezegonkorretako baldintzetara egokitzea.
		<input type="checkbox"/>	7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna bezala erabiltzea.

BERRESKURAPEN eta INDARTZE SISTEMA

DBH guztian ebaluaketa jarraia edo etengabekoa da. Ebaluaketa guztietan erreperazioak egingo dira eta erreperaketa horietan menperatzen ez diren gaiak soilik sartuko dira. Horrela, gainditu gabeko ebaluaketa bat gainditzeko beste aukera bat egongo da. Ekainean gainditu ez dena gainditzeko aukera egongo da. Ebaluaketa bakoitza gainditzeko ezinebestekoa izango da edukien %50 gaindituta izatea. Ekainean irakasgaia gainditu gabe geratzen bada ikasleek hurrengo kurtsoko edozein ebaluaketa gaindituz gero, aurreko ikasturtekoa gaindituzat emango da.

ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA: KALIFIKAZIO TRESNAK eta IRIZPIDEAK

Ebaluazioa hezitzailea izango da. Ebaluazioak ikasleen aurrerapenak identifikatzera eta ikasleek izan ditzaketen zailtasunak hautematera bideratuta dago; irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintzan zailtasun horiek zuzentzen lagunduko duten erabakiak hartu daitezten. Horrela, prozesu didaktikoa ikasleen beharretara egokituko da. Ikasleen ikasketak ez ezik, ikasteko prozesuak ere ebaluatuko dira. Ebaluazioa konpetentziak ebaluatzerantz zuzenduko da (ez oinarritzako jakintzak ebaluatzerantz). Konpetentzia espezifikoen ebaluazio-irizpideak izango dira ikaskuntza-prozesuen erreferente. Ikastetxearen autonomiaren barruan eta ikasgelaren ezaugarriari erantzuna emateko, ebaluazio-irizpideak egokitu dira. Ebaluazioa globala, etengabea eta prestakuntzakoa da. Ebaluazioa eguneroko jardunean txertatuta egongo da eta ez soilik bukaeran. Irakasle-taldeak, ikasturtea amaitzean, azken ebaluazio-saioa egingo du ikasleek lortutako konpetentzia-garapena aztertu ondoren.

Ebaluazio tresnak eta erremintak: askotariko ebaluazio tresnak erabiliko dira (aurkezpenak, galdetegiak, iruzkinak, froga fisikoak, ekoizpenak, audioak, bideoak...). Ebaluazio erremintei dagokienez, kontrol zerrendak, errubrikak, balorazio eskalak, etab, erabiliko ditugu.

METODOLOGIA

Programazio honetan erabilitako metodologia ikasle bakoitzaren ikaskuntza erritmoa eta estiloa errespetatzen duten jardura eta estrategietan oinarritzen da. Ikaskuntza aktiboa eta kooperatiboa sustatzen da, non ikasleek beren ikaskuntza-prozesuan protagonismoa hartzen duten. Horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, problemen ebazpena, eta egoera errealetan oinarritutako ikaskuntza erabiliko dira, ikasleen motibazioa eta autonomia bultzatuz.

Materialak eta jarduerak anitzak eta eskuragarriak izango dira, aniztasuna errespetatuz eta ikasleen beharretara egokituz. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) kontuan hartuta, material didaktikoak eta ebaluazio tresnak inklusiboak izango dira, ikasle guztien parte-hartzea bermatzeko. Era berean, teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikaskuntza prozesua aberasteko eta ikasleen trebetasun digitalak garatzeko.

Azkenik, ebaluazio formatiboa eta etengabea izango da, ikasleen aurrerapenak aztertzeko eta beharrezko egokitzapenak egiteko. Metodologia hau ikasleen motibazioa eta inplikazioa handitzea du helburu, gaitasun guztiak modu integral eta orekatuan garatzeko.

ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Ikasleen aniztasuna kontuan hartzea ezinbestekoa da hezkuntza inklusibo eta kalitatezko bat bermatzeko. Ikasle bakoitzaren behar bereziak eta ezaugarri indibidualak identifikatzen dira, eta horien arabera egokitutako estrategia didaktikoak garatzen dira. Horretarako, hainbat baliabide eta metodologiak erabiltzen dira, hala nola, ikaskuntza pertsonalizatua, taldekatze malguak eta edukiak egokitzea.

Aniztasunari erantzuteko, irakasleek banakako arreta eskaintzen dute, ikasleen garapen akademikoa eta emozionala hobetzeko. Material gehigarriak, errefortzu-saioak eta testuinguru desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzen dira, ikasle bakoitzaren erritmo eta gaitasunetara moldatuz.

Programazioetan, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) oinarri hartuta, aniztasunari erantzuteko estrategiak modu inklusiboan planifikatzen dira. IDUren bidez, ikasle guztien gaitasunak eta estilo ezberdinak kontuan hartzen dira, eta materialak, metodologia eta ebaluazio tresnak egokitzen dira ikasleen premietara. Honela, ikaskuntza esanguratsua eta eraginkorra bermatzen da, aniztasunaren aberastasuna baliatuz ikasle guztiek arrakasta izateko aukera izan dezaten.